



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko apirilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko apirilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : IDIART Claudine.

Deialdiaren eguna : 2024ko martxoaren 29a

Afitxatze eguna : 2024ko martxoaren 29a

13. ERABAKIA: IPAR EUSKAL HERRIKO HERRIEN BILTZARREKO BAZKIDE IZATEA

(9.1 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio herria Ipar Euskal Herriko herrien Biltzarreko bazkide izatea 2024 urtean.

Honakoak dira Biltzarraren xedeak:

- Herrien ahotsa izatea
- Ipar Euskal Herriko problematika amankomunei buruzko gogoetak elikatzea
- Proposamenak egitea
- Gure patu komunitatearen bilakaera instituzionala segitzea.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, herria Ipar Euskal Herriko herrien Biltzareko bazkide izatea 2024an,

Jean-Marc Oçafraïn jauna **IZENDATU DU** Ortzaizeko herriaren ordezkari gisa,

- **ONARTU DU**, 42,85 €ko bazkide saria ordaintzea 2024 urterako,

BAIEZTATU DU, gastu horrentzako kredituak badirela 2024ko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 15

Balitzko boz kopurua : 15

ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko apirilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/04/19an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/04/19an.